



2. AKTA

2005eko otsailaren 23an egindako **TOKIKO GOBERNU BATZARRA.**

LEKUA: Pasaiako Hirian eta Udaletxean.

DATA: Bi mila bosteko otsailaren hogeitahiruan.

BERTARATU DIRA:

Lore Suárez Linazasoro a.
Lucia Querido Noceti a.
Jesús M^a García Garde j. eta
Fco. Javier Pombo González j.

Lehendakaria:

Izaskun Gómez Cermeño Andre Alkatea

Lehenengo deialdian, Izaskun Gómez Cermeño alkate andrea buru dutela eta Joseba Belaustegi Cuesta Behin-behineko idazkari jauna bertan dela, goian aipatutako zinegotziak bildu dira, Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura egiteko.

Tokiko Gobernu Batzarra legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela egiaztatu ondoren, lehendakariak 8,00retan bilkurari hasiera eman dio eta gai-zerrendako ondoko puntuak aztertzeari ekin diote:

1.- Aurreko batzarraldiko akta 1. 05-1-24koa, irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek goiburuan aipatzen den akta aztertu ondoren guztien adostasunez erabaki dute onartzea eta dagokion akta-liburura transkribatzea.

2.- Alkatetzak 05-2-10ean emandako ebazpena berrestea. Kontu eta fakturen zerrenda: 16/04.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez erabaki du alkatetzak 05-2-10ean emandako ebazpena berrestea. Ebazpen horren bidez 16/04 zk.a duen kontu eta fakturen zerrenda onartu zen, ondoko zenbatekoarekin: LAUROGEITA HAMABOST MILA, LAUREHUN ETA HIRUROGEITA ZAZPI EURO ETA HAMALAU XENTIMO (95.467,14 euros).

3.- 05/1 fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak honako kontuak eta fakturak onartzea erabaki du:

Zk.:1/05

Zenbatekoa: BERROGEITA LAU MILA BEDERATZI EHUN ETA BI EURO ETA HAMAHIRU ZENTIMO (44.902,13 euro).

4.- Giza-Larrialdietarako laguntza ekonomikoak, Udalaren agindupekoak. 05/1 Proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2005ko otsailaren 17an egindako proposamena eta Udalaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 30.250,17 eurokoak.Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-72/05 Baimenduaren kontura.

5.- Giza-Larrialdietarako laguntza ekonomikoak, Eusko Jaurlaritzako agindupekoak. 05/1 Proposamena.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Arduradunak 2005eko otsailaren 17an egindako proposamena eta Eusko Jaurlaritzaren menpeko Gizarte Larrialdietako onuradunen zerrenda, Tokiko Gobernuaren Juntak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ONTZAT EMATEA espedientean agertzen diren onuradunen Laguntzak 263.497,95 eurokoak.Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A-71/05 Baimenduaren kontura.

6.- 04-12-24ko Tokiko Gobernu Batzarraren akordio baten akatsak zuzentzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2004ko abenduaren 24an elkarreentzako 2004ko diru-laguntzak onartu zituen.

Akta idazteko Gizarte-ekintzako Informazio Batzordearen akta eskatu zen eta hori posta elektronikoz bidali zuten. Baina nahasketa bat izan zen eta 2004ko irizpena bidali beharrean 2003koa bidali zuten.

Akats horretaz ohartu eta azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 105.2.artikuluarekin bat, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

Tokiko Gobernu Batzarrak 04-12-24an hartutako erabakia zuzentzea. Idazketa zuzena honako hau da:

“ 2004ko dirulaguntzetarako aurkeztutako eskaerak aztertu ondoren eta teknikariaren txostena ikusi eta gero, Tokiko Goberno Batzarrak bertan dauden zinegotzien aho batez, ondorengo elkarteei dirulaguntza hauek banatzea

ERABAKI DU

LEHENA.- Dirulaguntza hauek banatzea:

• **Partidaren izena: Sustapen programa herri mailan. Zk. 04-481-313-50-01.....12.500,00€**

- Emakumea

- LAGUN ARTEA	1.100,00 €
- AZKUENE	1.200,00 €
- ITSASO ALDE	600,00 €
- KATXALIN	300,00 €

- Prebentzioa eta gizartaratzea

- FUNDACIÓN IZAN-NORBERA	1.600,00 €
- EKINTZA DA SALUD	600,00 €
- ADOA	650,00 €

- Herri mailakoa

- ORTZADAR	825,00 €
- ALCER-GIPUZKOA	200,00 €
- ATCORE	200,00 €
- AGIPASE	600,00 €
- ACABE	600,00 €
- ASFAMOGI	600,00 €
- ATZEGI	1.300,00 €
- ATECE	200,00 €
- ADEMGI	200,00 €
- DONANTES DE SANGRE	1.500,00 €
- HOMENEJE VEJEZ MARINO	225,00 €

• **Partidaren izena: Jubilatuen etxeentzako diru-laguntza. Zk: 04-481-456-10-03**
3.632,00€

- Hirugarren Adina

AITONEN ATERPEA – Pasai Donibane	750,00 €
----------------------------------	----------



ZAHARREN BILTOKIA – Pasai San Pedro	750,00 €
ZAHARREN BILTOKIA – Pasai Antxo	750,00 €
HOGAR DEL JUBILADO – Trintxerpe	750,00 €
PREINCA ELKARTEA – Antxo	632,00 €

BIGARRENA.- Akordio hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.”

7.- Hitzarekin publizitatea kontratatzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Publizitate-moduluak eta gehigarriak kontratatzea –guztira 24.000 euro– Euskara, Gazteria eta Kirola eta Kultura sailek antolatutako hainbat programa eta jardueren berri emate aldera. Kopuru hori 1.10.00.226.455.10.01.2005 publizitatea izeneko partidatik ordainduko da.

BIGARRENA.- Erabaki hau gauzatzeko udalak eta Oarsoaldeko Hitzako ordezkariak dagokion kontratua sinatuko dute.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

8.- Obra lizentzia eskaera: Blas de Lezo, 21.

ZUBEROA ASESORIA Y ADMINISTRACION DE FINCAS, Blas de Lezo, 21 zk.ko jabekideen izenean, bertako eraikinean gas-instalazioa eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

E R A B A K I D U

LEHENA.- ZUBEROA ASESORIA Y ADMINISTRACION DE FINCAS, Blas de Lezo, 21 zk.ko jabekideen izenean, eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.

- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teilatura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikulua arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (esekitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioen baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatuak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.
- j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuena erabiliko da.

HIRUGARREN.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekursoen berri ematea.

LAUGARREN.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzailtzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 9.766 eurokoa da. eta horietatik 4.833 € eraikinaren elementu erkieei dagokie.

9.- Obra lizentzia eskaera: Vda. Passaman, 1.



ARSEMIO ITXASO GONZALEZ, Vda. de Passaman, 1 zk.ko jabekideen izenean, bertako eraikinean gas-instalazioa eskaera aurkeztu zuen. Eskaera hori aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ARSEMIO ITXASO GONZALEZ, Vda. de Passaman, 1 zk.ko jabekideen izenean, eskatu duen lizentzia ematea ondorengo baldintzekin:

- a) Aipatutako instalazioak behin betiko martxan jartzeko enpresa erantzuleak egin beharko dio azken azterketa eta ikuskapena, eta nahitaez eduki beharko du Industria Ministerioaren Ordezkaritzak agintzen duena.
- b) Eraikineko jabekideek ezingo dituzte jarri galdarak, metagailuak, berogailuak, deposituak ea. bezalako aparatuak balkoietan, terrazetan edota kale aldera ematen duten fatxadetan eta jendeak ikusteko moduan.
- c) Aparatuak balkoietan jartzekotan, proiektu tekniko bat egin beharko da aparatuek okupatzen duten espazioa ixteko eta uniformitate, homogeneitate eta batasunaren irizpideak mantzentzeko eta indarrean den udal araudiaren arabera onarpena eman diezaion proposamena egin beharko zaio.
- d) Pasaiako Arau Subsidiarioen 062 artikulua arabera, eraikita dauden eraikinetan gasak eta kea teiltura bideratzeko hodiak barrutik jartzea ezinezkoa denean eta igogailuak jartzea ezinezko adenean, udalak baimendu ahal izango du instalazio hauek patio horien fatxadei erantsita jartzea, estalkiraino. Horretarako, teknikari eskudun batek sinatutako proiektu teknikoa aurkeztu behar dute, ikus-onetsi ofiziala duena. Ez da baimentzen sukaldeko aparatuen eta/edo berogailuaren gasak eta kea zuzenean kanporatzea.
- e) Pasaiako AASSen 072 artikuluan adierazten da etxebizitzetan NTE-ISH eta NTE-ISV araudiak bete behar direla; eta horien arabera, galdarako gasak eta keak estalkira kanporatuko dira, horretarako espresuki jarritako hodi baten bidez.
- f) Aurreko puntuan aipatzen dena ezinezkoa izanez gero, eta hau teknikoki frogatu beharko litzateke, uztailaren 12ko 2000 (BOPV 19/09/00 Agindua bete beharko da eta etxebizitzetan gasifikazio eta berogailuen instalazioei buruz esaten dena.
- g) Gas Pasaiaren baimena.
- h) Pasaiako AASSen 175 artikulua arabera, finka bakoitzaren hargune nagusitik kontsumitzeko lekuetaraino gorako kanalizazio bertikalak barru aldeko patioetatik joango dira beti edota kondukzio-kaxatik (aireztatua eta sarbideduna); kanpoaldeko fatxadatik oso disimulatua geratzen bada bakarrik izango da onartua (eskitokien barrutik, sareta barrutik kaxa aireztatutik ea. edo fatxadaren konposizio arkitektonikoaren barruan ongi egokituko den soluzioren baten bidez).
- i) Presioaren kaxa erregulatuak begi-inpaktu gutxien izango duten horma-ataletan jarriko dira.

j) Aukeratutako fatxadan ahalik eta modurik ezkutuen erabiliko da.

HIRUGARREN.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

LAUGARREN.- Akordio honen berri Udal Kontuhartzaitzari ematea dagozkion tasak eta zergak likidatzeko.

Lizentzia honetako lanen aurrekontua 2.199 eurokoa da. eta horietatik 1.599 € eraikinaren elementu erkieei dagokie.

10.- Gorritiko harrobian txabola legeztatzeako eskaera.

Blas eta Jone Olasagasti anai-arrebek 2004ko azaroaren 25ean Gorritiko harrobian dagoen txabola legeztatzeako eskaera egin zuten, eta horren aurrekontua aurkeztu zuten.

Aipatutako lur horiek Pasaiako Arau Subsidiarioetarako, Ulia 2.13 HJEaren barruan daude, eta horren hirigintza-erregimenak ondoko sailkapena du: lurzoru urbanizaezina; zehazki Erauzketa-eremu, Zabortegei eta Gune andeatuen Paisaia eta Funtzionaltasuna berreskuratzeko eremu batean kokatuta dago. Eta eremu horietarako ondokoa ezartzen dute Arau Subsidiarioek:

D.1.7. ERAUZKETA-EREMU, ZABORTEGI ETA GUNE ANDEATUEN PAISAIA ETA FUNTZIONALITASUNA BERRESKURATZEKO GUNEAK.

Lurzoru urbanizaezinean kokaturiko guneak dira, erauzketa-lanen leku izan direnak (Araneder Arrobia), zabortegei erabilera izan dutenak (Planako Erreka), eta/edo gaur egun itxura andeatua daukatenak, txabolak eta kontrolik gabeko baratzak direla eta (Uliako Hego mazela).

1.- ERAIKUNTZAKO ERREGIMENA.

Eraikuntza mota guztiak debekatuta daude, Zerbitzuen Azpiegituretarako eta Ekipamendu Komunitarioko instalazio bereziak salbu.

Harrobietako eraikuntza guztiak, txabolak eta baratze txikietan dauden eraikin osagarriak ordenazioz kanpo eta bota beharrezkotzat jotzen dira.

2.- ERABILERA KO ERREGIMEN OROKORRA.

Erabilera nagusia:

- *ESPAZIO LIBREAK, espazioaren zainketa, mantentzea eta berreskuratzea.*
- *BASO-ERABILERA, paisaia berreskuratzeko.*

Erabilera baimenduak:

- *NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZTA USTIATEGIAK, baldin eta lurraldean aldaketa fisikorik eragiten ez badute eta eraikuntza osagarriak beharrezkoak ez badira.*

- *EKIPAMENDU KOMUNITARIOA, beronen ezarpena beharrezkoa eta egokia dela justifikatua dagoenean, aldaera hauetan: kirola, arlo sozio-kulturala, aisialdia eta laguntzazkoa.*

- **ZERBITZUEN AZPIEGITURAK.**



Erabilera debekatuak: - Gainontzeko guztiak.

Horiek horrela eta kontuan hartuta 1976ko Lurzoruaren Legearen Testu Bategineko 184.3. artikulua, Tokiko Gobernu Batzarrak, zinegotzien aho batez, ondorengo

ERABAKI DU

LEHENA.- Blas eta Jone Olasagasti anai-arrebei Gorritiko harrobian dagoen txabola prefabrikatua legeztatzeke lizentzia ukatzea; izan ere, *Erauzketa-eremu, Zabortegei eta Gune andeatuen Paisaia eta Funtzionaltasuna berreskuratzeko eremu* gisa sailkatuta dauden lurretan debekatuta daude mota guztietako eraikuntzak, eta ordenazioz kanpo daude harrobietako eraikuntza guztiak, txabolak eta baratze txikietan dauden eraikin osagarriak.

BIGARRENA.- Interesdunei txabola handik kentzeko agindua ematea eta ondokoa ohartaraztea: agindutakoa betetzen ez badute administrazio honek kenduko du txabola, interesdunen kontura.

HIRUGARRENA.- Interesdunari akordio hau jakinaraztea eta honen aurkako errekurtsoen berri ematea.

11.- La Herrera 2. zenbakiko biltegia eraisteko obrak legeztatzeke lizentzia.

Gai hau mahai gainean geratu da.

12.- "Molinao Errekaren urbanizazioaren 1. fasea" obraren 3. ziurtagiria - Pasai Antxo.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 3

Obra: " Molinao Errekaren urbanizazioaren I. fasea "

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HIRU MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI EURO ETA HOGEITA BEDERATZI ZENTIMO (23.168,29 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1238/04 Disposamenduaren kargura.

13.- "Trintxerpeko Goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntzaren" obraren 8. ziurtagiria.



Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 8

Obra: "Trintxerpeko goiko gunean sarbide berriak eta igogailuen eraikuntza"

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazábal Azkoitia (Udal Arkitektoa) eta José M^a Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: BERROGEITA HAMAR MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HIRU MILA EURO ETA BERROGEITA BEDERATZI ZENTIMO (50.743,49 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-379/04 Disposamenduaren kargura.

14.- "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea" obraren 8. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 8

Obra: "Lezo-Bide, 22-24ko urbanizazioaren 2. fasea"

Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j.

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HIRU MILA ZORTZIEHUN ETA LAUROGEITA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HEMERETZI ZENTIMO (23.884,79 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-378/04 Disposamenduaren kargura.

15.- "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea" obraren 9. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 9

Obra: "Antxo Iparra 01 (C-14 eta C-15) Hiri Eremua berriro urbanizatzea "



Obra-zuzendariak: Igor Urrutia Zulueta j. (ASMATUren Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria) eta Juan Carlos Lapazarán (Arkitektoa).

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMALAU MILA HIRUROGEITA HAMALAU EURO ETA HIRUROGEITA BAT ZENTIMO (34.074,61 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-377/04 Disposamenduaren kargura.

16.- "Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua" obraren 3. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 3

Obra: ""Trintxerpeko Gran Sol kalearen urbanizazio-proiektua""

Obra-zuzendariak: Iñaki Ormazabal Azkoitia j. (Udal Arkitektoa) y D. Jose Mari Irazusta Garikano (Udal Aparejadorea).

CONSTRUCCIONES ARKAITZA, S.A.enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HAMAZAZPI MILA ZORTZI EHUN ETA HAMABOST EURO (17.815 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-1237/04 Disposamenduaren kargura.

17.- "Bizkaia Plaza urbanizazioaren" obraren 6. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 6

Obra: "Bizkaia Plaza urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j. (Arkitektoa) eta Ainara Alvarez Celaya a. (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HEMEZORTZI MILA HOGEITA HIRU EURO ETA LAUROGEITA ZORTZI ZENTIMO (38.023,88 euro).



Indarreango udal aurrekontuko D-510/04 Disposamenduaren kargura.

18.- "Bizkaia Plaza urbanizazioaren" obraren 7. ziurtagiria.

Tokiko Gobernuaren Batzarrak, bertako zinegotzien aho batez, erabaki du ontzat ematea hurrengo ziurtagiria:

Zka.: 7

Obra: "Bizkaia Plaza urbanizazioa"

Obra-zuzendariak: Eduardo Ramos Platón j. (Arkitektoa) eta Ainara Alvarez Celaya a. (Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaria)

CONSTRUCCIONES OZIO, S.L. enpresa kontratistaren alde.

Zenbatekoa: HOGEITA HAMAIIKA MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO ETA HOGEITA HAMASEI ZENTIMO (31.475,36 euro).

Indarreango udal aurrekontuko D-510/04 Disposamenduaren kargura.

19.- Ondare erantzukizunaren inguruko hainbat erreklamazio.

A) M^a Pilar Diego Zubiaurrek egindako ondare-erreklamazioa.

MARIA PILAR DIEGO ZUBIAURRE and.ak udalean erreklamazioa aurkeztu du eta bertan ondokoa adierazten du: 2004ko uztailaren 18an Euskadi Etorbidea trafikoarentzat itxita zegoen Karmengo jaietako feria zela-eta. 5. zk. parean, Telefonicako kutxeta baten hertzarekin estropezu egin ondoren erori egin zen eta erorketak zenbait zauri eragin zizkion.

Udalak 2004ko abuztuaren 20an idatziz jakinarazi zion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela.

HAAJAPEL-ren 92. artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea amaitu da eta ez du dokumentazio hori aurkeztu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea iraungitzat jotzea eta jarduketak artxibatzea.



BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

B) Pastora Abal Refojos and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

PASTORA ABAL REFOJOS and.ak udalean erreklamazioa aurkeztu du eta bertan ondokoa adierazten du: 2004ko maiatzaren 23an Arraunlari kaleko espaloitik zihoala, San Pedroko elizako fatxadan dauden bankuen parean baldosekin estropezu egin ondoren erori egin zen eta erorketak hainbat zauri eragin zizkion.

Udalak 2004ko urriaren 26an idatziz jakinarazi zion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela.

HAAJAPEL-ren 92. artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea amaitu da eta ez du dokumentazio hori aurkeztu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea iraungitzat jotzea eta jarduketak artxibatzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

C) Engracia Berrotarán Brit and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

ENGRACIA BERROTARAN BRIT and.ak udalean erreklamazioa aurkeztu du eta bertan ondokoa adierazten du: 2004ko uztailaren 6an, Lezo Bide kaletik zihoala, biribilgunearen parean kutxeta baten burdinazko tapa zapaldu, tapa mugitu eta kutxeta barrura erori zen, erorketaren ondorioz hainbat zauri egin zituen.

Udalak 2004ko uztailaren 26an idatziz jakinarazi zion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela.

HAAJAPEL-ren 92. artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea amaitu da eta ez du dokumentazio hori aurkeztu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea iraungitzat jotzea eta jarduketak artxibatzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.



D) Tania Filipa Pontes Novais and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

TANIA FILIPA PONTES NOVAIS and.ak erreklamazioa aurkeztu du eta bertan ondokoa adierazten du: 2004ko uztailaren 6an ziklomotorearekin Arrandegi kaletik Terranova kalerantz zihoala, bi kaleen arteko bidegurutzean irrist egin zuen galtzadan zeuden hartxintzarrengatik, lurrera erori zen eta erorketak ziklomotorean hainbat kalte eragin zituen.

Udalak 2004ko uztailaren 30ean idatziz jakinarazi zion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela.

HAAJAPEL-ren 92. artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea amaitu da eta ez du dokumentazio hori aurkeztu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea iraungitza jotzea eta jarduketak artxibatzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

E) Zaida Gomez Sollak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

ZAIDA GOMEZ SOLLA and.ak erreklamazioa aurkeztu du Erreterria kalean egiten ari diren obrek (espaloiak asfaltatu, ur-mozketak...) haren establezimenduan eragin dituzten kaletengatik (PELUQUERIA ZAIDA, Erreterria kalea, 1).

Udalak 2004ko otsailaren 4an idatziz jakinarazi zion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela.

HAAJAPEL-ren 92. artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea amaitu da eta ez du dokumentazio hori aurkeztu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea iraungitza jotzea eta jarduketak artxibatzea.



BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

F) José Vicente Huegun Ansola jn.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

JOSE VICENTE HUEGUN ANSOLA jn.ak erreklamazioa aurkeztu du, Erreterria kalean egiten ari diren obrek (espaloiak asfaltatu, ur-mozketak...) haren establezimenduan eragin dituzten kaletengatik (BAR NILA, Erreterria kalea, 1).

Udalak 2004ko otsailaren 4an idatziz jakinarazi zion dokumentazio gehigarria aurkeztu behar zuela.

HAAJAPEL-ren 92. artikuluan ezartzen den hiru hilabeteko epea amaitu da eta ez du dokumentazio hori aurkeztu.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea iraungitzat jotzea eta jarduketak artxibatzea.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

G) Isabel Zabaleta Patiño and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

ISABEL ZABALETA PATIÑO and.ak erreklamazioa aurkeztu du 2005eko urtarrilaren 1ean Euskadi Etorbidetik Marinelen kale hasieran dagoen zebra-bidean erori zela-eta.

Ez du erorketa horren frogarik aurkeztu eta dago inon jasota Udaltzaingora edo Zerbitzuetara deitu izana edo horien parte-hartzea eskatu izana.

Bi lekuko aurkeztu zituen eta horiek aurrez prestatutako deklarazioa sinatu zuten. Deklarazio horrek, ordea ez du zentzurik; izan ere, erreklamazio-egileak behatz bat hautsi zuela adierazten dute eta hori ezin da antzeman ikusita bakarrik. Are larriago, lekuko horiek haren aita eta bikotekidea dira eta ahaidetasun hori ezkutatu zuten, pertsona ezezagun bezala aurkeztuz.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ISABEL ZABALETA PATIÑO and.ak aurkeztutako erreklamazioa EZESTEIA.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

H)Mapfre Seguros Generales-ek, Autoservicio Antartoren izenean, aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

MAPFRE SEGUROS GENERALES-ek, AUTOSERVICIO ANTARTOren izenean, erreklamazioa aurkeztu du eta bertan aipatzen da Oarso kalean egiten ari diren obretan aipatutako autozerbitzuan sortutako kalte ekonomikoa. Hori dela eta, 4.981 euro erreklamatzeko dizkio udalari.

Obrak egiteko kalea trafikoarentzako itxi behar izan zen, eta hainbat ibilgailuri bakarrik eman zitzaion sartzeko baimena (garajeetara sartzeko, tailer mekanikoetara sartzeko...). Gainera, etxebizitza eta dendetako sarrerak behar bezala prestatu ziren.

Erreklamazio-egilearen zeregina da administrazioaren funtzionamendu egoki edo desegokiaren eta eragindako kalteen arteko kausalitatea frogatzea, eta ez dago horrelako frogarik.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- MAPFRE SEGUROS GENERALES-ek, AUTOSERVICIO ANTARTOren izenean aurkeztutako erreklamazioa EZESTE.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

I) Pilar Ovarzabal and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

MARIA PILAR OYARZABAL AMATRIAIN and.ak erreklamazioa aurkeztu du 2004ko ekainaren 30ean Gelasio Aranburu kaleko 5. zk.aren parean erori egin zelako, Iberdrolako erregistro-tapa batekin estropezu egin ondoren.

Gertakari horiek ez daude frogatuta eta inguruabarrak honako hauek dira:

- a) Egun horretan ez zioten Udal Ikuskaritzari gertatutakoaren berri eman.
- b) Larrialdietako partean ez da jasotzen lesioaren arrazoi zehatza, ezta aipatutako kutxetarekin zerikusirik duenik ere.
- c) Ez dituzte aurkeztu ustez erori zenean bertan ziren pertsonen datuak.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- MARIA PILAR OYARZABAL AMATRIAIN and.ak aurkeztutako erreklamazioa EZESTE.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsioen berri ematea.

J) Enrique Luis Vázquez Gontade jn.ak aurkeztutako erreklamazioa.

ENRIQUE LUIS VAZQUEZ GONTADE jn.ak erreklamazioa aurkeztu zuen 2004ko uztailaren 30ean udal langile bat ur-zorrotadarekin Arrandegi, 1-Araneder kalea garbitzen ari zela harri bat zapaldu eta horren ondorioz izandako kalteengatik.

Ez da frogatu erorketa hori nola gertatu zen.

Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Sailak egindako txostenaren arabera, langilea ez zen ohartu zergatik gertatu zen erorketa.

Erreklamazio-egilean aurkeztu duen lekukoak adierazi du erorketa beste egun batean gertatu zela, beraz, gertakaria ezin da frogatutzat eman.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- ENRIQUE LUIS VAZQUEZ GONTADE jn.ak aurkeztutako erreklamazioa EZESTE.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

K) Amparo Naranjo Romero and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

AMPARO NARANJO ROMERO and.ak erreklamazioa aurkeztu du 2003ko abenduaren 7an Faroleku bidearen 1-3 zk.en parean erori zelako, zoladuraren egoera kaskarra dela eta.

Zerbitzu, Sare eta Mantentze-lanen Saileko txostenak aztertu ditugu.

Dagoen dokumentazioaren arabera, erorketa hori egiaztatuta dago, eta baita espaloia-egoera kaskarra eta erorketaren arteko kausalitatea ere.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- AMPARO NARANJO ROMERO and.ak aurkeztutako erreklamazioa ONARTZEA.

BIGARRENA.- Udalak Allianz aseguru-etxeari 901,52 euro ordainduko dizkio, A-88/05 partidatik, frankizia gisa, aseguru-etxea erreklamazio-egilearekin akordio batera iristen denean.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

L) José Angel Arruti Merino jn.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegiak 270/04 prozedura laburtuari dagokion epaia eman du, hain zuzen ere, 18/05 zk.a duena. Horren arabera, JOSE ANGEL ARRUTI MERINOK jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa onartzen da. Hark errekurtsoa aurkeztu zuen Euskadi Etorbidea, 13. zk.an 2003ko abenduaren 17an farola bat erori eta SS-0052-AN matrikula duen ibilgailuan eragindako kalteengatik; 1,707,62 euro erreklamatu zituen. Epaiak adierazten du errekurtso-egileak eskubidea duela 1.733,86 euroko kalte-ordaina jasotzeko, gehi istripuaren egunetik ordainketa egiaztatzen eguneraino sortzen diren legezko interesak.

Halaber, udalak 901,52 euroko frankizia dauka.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- Udalak Allianz aseguru-etxeari 901,52 euro ordainduko dizkio, A-86/05 partidatik, erantzukizun zibileko polizan ezarritako frankizia gisa, Euskadi Etorbidea, 13. zk.an farola bat erori eta SS-0052-AN matrikula duen ibilgailuan eragindako kalteengatik. Ibilgailu hori José Angel Arruti jn.arena da.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

M) Josefa Gómez Alvarez and.ak aurkeztutako ondare-erreklamazioa.

JOSEFA GOMEZ ALVAREZ and.ak erreklamazioa aurkeztu du 2003ko abenduaren 22an Azkuene kaleko 36. zk. parean espaloian erori egin zelako; izan ere, zoladuraren egoera kaskarra zen: gorabehera handiak zeuzkan eta baldosa batzuk hondoratuta zeuden.

Gertakari horiek izan ziren egunean udalak Allianz aseguru-etxean zuen hartua erantzukizun zibileko poliza. Aseguru-etxe horren txostenaren arabera, erreklamazioa onartu egin beharko litzateke eta erreklamazio-egileari 1.896,63 euro eskaini.

Halaber, udalak 901,52 euroko frankizia dauka.

Horiek horrela, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertan dauden zinegotzien aho batez, ondokoa

ERABAKI DU

LEHENA.- JOSEFA GOMEZ ALVAREZ and.ak aurkeztutako 1.896,63 euroko erreklamazioa ONARTZEA.



BIGARRENA.- Udalak Allianz aseguru-etxeari 901,52 euro ordainduko dizkio, A-87/05 partidatik (udal aseguruaren frankizia), Banku Popularraren 0075-0093-21-0190020195 kontu zenbakian sartuz. Eta gainerako kopurua, hau da, 995,11 euro, Allianz aseguru-etxeak ordainduko du.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea eta honen aurka jar daitezkeen errekurtsoen berri ematea.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 9,10etan amaitu da bilkura. Bertan eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, nik, behin-behineko idazkariak, akta hau egiten dut alkatearen oniritziarekin.